

1. Politika eta gizartea

Ane Larrinaga

Politikaren azterketa ulertzeko, gizarteak eta politikak esparru autonomo modura izan duten sorrera historikoa hartu behar da abiaburutzat. Sorrera-prozesu horrek erakusten digu, ongi erakutsi ere, politikaren inguruko gogoeta aro modernoaren gizarte-baldintzetan kokatu behar dela. Bestalde, gizarte-zientzietan maiz gertatu den bezalaxe, politikaren azterketan ikusmolde anitzetan oinarritutako interpretazioak aurkitzen ditugu. Ikusmoldeen arteko banaketa eragiten duten irizpideak era askotakoak dira: politikaren autonomiari buruzko eztabaidak, gizarte-ordena ulertzeko moduak, gai akademikoen espezializazioak eta erakundetzeak ezarri dituen sailkapenak eta, batik bat, jakintza-arloaren aztergaia bera zedarritzeko erak. Funtsean, liburu honetan egiten den hautua honako hau da: politikaren zientziak boterearen erabilera aztertzen du gizarte-testuinguruan.

1.1. POLITIKA ETA GIZARTEA, BEREIZKETA MODERNOA

Jakina denez, gizarte-taldeetako bizitza soziala osagai askok eratzen dute. Osagai horien artean berebiziko garrantzia dauka atal politikoak. Ezin da bestera izan, zeren, aurrerago ikusiko dugun moduan, gizartean dagoen boterearen erabilera eta banaketarekin estuki lotuta baitaude betiere elementu politikoak. Politikaren dimentsioa ulertzeko eta politikotasunaren hautemate modernoaz gogoeta egiteko, halere, beharrezkoa da alde zuzenetik gizarte-errealitateari buruzko zenbait oharpen egitea.

Askotan irudi aldagaitza eta fisikalista agertzen duen arren, errealitate soziala gizakiek sortutako errealitate-mota bat da. Ez dauka antzekotasunik errealitate fisikoarekin, zeren, gizakiek ohartu ala ez, errealitate fisikoa “hor baitago” betiere. Errealitate soziala, aldiz, historian zehar gizakiek burutzen dituzten egintzen ondorioz eratzen da, hau da, haien jarduera sozialen bitartez.

Antzeko prozesua gertatzen da gizakiek gizarteari buruz eskuratzen duten jakintzarekin ere. Jakintza hori esperientzia sozialari itsatsita egoten da. Gizakiek beti edukitzen dute gizarteari buruzko ezagutzaren bat, baina ez beti berbera. Gizartea hautemateko moduak badu zerikusirik giza ulerkuntzak sozialki sortutako errealitatearekin harremanetan jasotzen duen esperientziarekin. Garai bakoitzeko jakintza soziala, beraz, garai horretan gizarte-errealitatea jasotzeko eta ulertzeko

dauden eredueta oinarritzen da. Hain zuzen ere, politikotasunaren esperientzia soziala eta hari lotuta dagoen ezagutza izango dira gure interesguneak hemendik aurrera.

Gaur egun ohituta gaude politikotasunaren eta sozialtasunaren arteko bereizketa egiten. Horrela, literatura espezializatuan zein hizkuntza arruntean eskuarki hitz egiten da Estatuaz eta Gizarteaz, kategoria horiek zeharo naturalak izango balira bezala. Hala ere, aipaturiko bereizketak, gaur egun daukaten esanahiarekin, ez ziren XIX. mendera arte finkatu.

Egia da Aristotelesekin *zoon politikón* gisara ezaugarritu zuela gizakia aspaldi. Pentsamendu grekoan, baina, “politiko” izate horrek sozialtasuna hartzen zuen barnean. Zehazkiago esateko, “giza abere politikoa” ez da “giza abere sozialaz” bereizten ikusmolde horretan, mundu grekoan gizarte-elkartea eta elkarte politikoa gauza bat besterik ez zirelako. Bizitza politikoa, *polisaren* barruan, bizitza kolektiboa adierazten zuen, elkarbizitza; edo areago, komunitate-bizitza (Sartori, 1992). Hartara, irudikapen grekoak ez zuen iragartzen politikotasunaren eta sozialtasunaren esparruek gerora osatu duten dikotomia.

Aristotelesen politika *polisaren* esparruari lotutako antropologia bat bazen, *polisa* desagertu zenean, politikotasunaren zentzua aldatu egin zen. Gerora, alde batetik, politikak itxura juridikoa hartu zuen erromatar pentsamenduan. Bestetik, munduaren ikuspegi kristauari egokitu zitzaionean, politika teologizatu egin zen Erdi Aroan zehar. Aitasantutzaren eta inperioaren arteko borroketan eta katolizismoaren eta protestantismoaren arteko hausturan nabarmen ikusten denez, politikaren kontzeptua erlijioarekin nahasten zen behin eta berriro. Azkenik, Platonengandik hasitako ildoari jarraituz, politikari buruzko diskurtsoa aldi berean etikoa eta politikoa zen diskurtso modura eratu zen Erdi Aroan arte. Luzaroan, bada, osagai juridikoak, teologikoak eta etikoak bildu dira politika kontzeptuaren menpean nahastura trinkoan.

Noiz osatu da politika, bere berezitasunaz eta autonomiaz hornituta dagoen gizarte-atal modura? Politika, adiera hertsian, ezin izango da eratu gizartea bera sortzen den unera arte. Izan ere, gizarte kontzeptua berria dugu ikuspuntu historikotik abiatzen bagara. Gizartea errealitate soziala eraikitzeke eta ulertzeke era berezi bat da, aro modernoan agertu dena, ez lehenago. Gizarte kontzeptuak adierazten du sozialtasuna errealitate autonomo gisa osatu eta hauteman daitekeela. Tönniesek “gizartearen aroa” esamoldea erabili zuen gizarte zibilaren funtsezkotatasuna ezagutu duen garaia adierazteko. Funtsezkotatasun hori ikuskera moral eta ideia politikoetan, zuzenbide-, ekonomia- eta politika-erakundeetan eta, azkenik, hizkuntza- eta arte-kategorietan islatu zen aro modernoaren hastapenetan. Gizartearen aroak ahalbidetu du, besteak beste, jakintza-mota berezi baten sorrera, alegia, gizarte-zientzien sorrera. Izatez, pentsamolde soziologikoak gizartearen izate autonomoa dauka abiapuntutzat, autonomoa bai errealitate zehatz gisa, bai pentsamendu-kategoria moduan.

Sozialtasunaren eraikuntza —errealitate autonomo gisa—, sozialtasuna politikotasunaren aurrean bereizteko eta emantzipatzeko dagoen premiak eragin zuen bereziki. Aitzinurratsak lehenago eman baziren ere, XVII. mendetik aurrera osatu zen European ezaugarri bereziak dauzkan egitura politikoa, hau da, Estatu absolutua. Esan daiteke Estatu eta Gizartea termino korrelatiboak direla, gizartea, hein handi batean, Estatu absolutu horren aurka —eta menpe— eratzen delako. Botere politikoaren kontzentrazioa lehenago ezagutzen ez zen bezala bultzatzen zuen botere-egitura bat izan zen Estatu absolutua, arian-arian gizartetik bereizirik eta gizartearen gainean kokatuta garatu zena.

Erdi Aroan ez zen estaturik egon eta, biak parez pare agertzen direnez, ez zen gizarterik ere eratu. Erdi Aroko komunitate politikoaren eta estatuaren artean dagoen desberdintasuna hitz batean laburbil daiteke: subiranotasuna. Aro Modernoan sortu ziren funtsezko kontzeptuak, hortaz, estatua eta subiranotasuna dira, biak loturik baitaude. Estatu subiranoa da berez. Halaber, “botere subirano” kontzeptuari “lurralde” eta “herri” kontzeptu korrelatiboak dagozkio. Erdi Aroan, baina, subiranotasunaren kontzeptua arrotza zen zeharo. Izan ere, Erdi Aroko komunitate politikoaren egitura poliarkian oinarritzen zen; horrela, luzaroan botereguneen aniztasuna izan zen nagusi Europako lurraldeetan.

Estatu modernoak, ordea, gune bakarrean biltzen du botere politikoa; gune hori baliabide desberdinez osaturik dago eta, horiek baliatuz, bai menpean dituen gizakien gainean bai barnean hartzen dituen lurraldeen gainean, etengabeko egintza burutzeko gaitasuna eskuratzen du. Horixe besterik ez da subiranotasuna. Halatan, estatu modernoak eratzen duen ordenak ez dauka zerikusirik Erdi Aroko ordenarekin; aitzitik, haren kontrapuntua da. Ohiz kanpoko indarra da haren lehenbiziko ezaugarria. Bada, Estatuak ez die uzten bere ordenapean daudenei beren kabuz defenda daitezen. Autodefentsarako eta erresistentziarako eskubideak, Erdi Aroan erakunde juridiko gisa indarrean zeudenak, ezabatu egin dira Estatuaren izaeraren aurkakoak izatean. Estatuak, Weberrek esan zuen legez, indarkeriaren monopolioa gordetzen du beretzat (Weber, 1979).

Hertsapen horren ondorioetako bat estatuaren ordenaren menpe dauden guztien berdinketan hezurramitzen da. Printze absolutuaren aurrean denak dira berdinak, menpeko hutsak, estatuaren tresna eta objektu gisa hautemanak. “Herria”, Erdi Aroko *populus*aren aldean, menpekoen batura besterik ez da orain; eta haren berdintasunaren funtsa, estatuarekin daukan menpekotasunean datza. Erdi Aroko *estatuak* egoera bakar batera, alegia, menpekoaren egoerara murriztu zirenean, “herria” —bere adiera modernoan— eratzeko bidea zabaldu zen. Herria, bada, Estatuaren sorkaria da eta, halatan, estatuaren aurka eta haren menpe eraikitzen da (Conde, 1951). Estatuaren aurka borrokatzean, batura indibidualista eta atomizatu horrek, Gizartearen eta Estatuaren arteko lehiaren lehen ekitaldia burutu zuen. Harrezkero, Gizartea eta Estatu dira historia modernoaren protagonista nagusiak.

Esparru politikoa eta gizarte-esparruaren garapenak isla nabarmena dauka pentsamenduaren bilakaeran ere, Soziologiaren eta —beranduago— Politika Zientziaren sorreran, hain zuzen ere. Oro har, jakintza politikoaren zeregina gizarte-errealitatearen barruan errealitate politikoak daukan partaidetza eta zentzua zehazteko ahaleginean mamitu ohi da hasiera-hasieratik. Ahalegin horrek bi norabide nagusi hartu ditu pentsamenduan. Alde batetik, printze absolutuaren pertsonifikazioa eginez, estatuaren gorespenera daramana (Makiavelo, Hobbes) eta, bestetik, “herriaren” pertsonifikazioaren bidez, gizartea egitura politikoaren aurrean lehenestera daramana (Altusio, Rousseau). Izan ere, printze absolutuaren pertsonifikazioa Estatu absolutuaren ideian bete zen une berean eman zitzaion hasiera “herriaren” pertsonifikazioari ere, gizarte kontzeptu gisa (Conde, 1951).

Halatan, lehen pentsalari politiko modernoek —Estatuaren sortzaile izan ziren politikariek in batera— esparru politikoaren ezaugarriak zedarritzeko helburu argia zeukaten. Modu horretan, bere espezifikotasuna zedarritzean, politikari erabateko estatus autonomoa ezagutu zitzaion gizarte-errealitatearen barruan. Errealitate politikoa gizartearen atal bihurtu zen, besteak beste, bere funtzionamenduaren logika erlijiotik eta printzipio moraletatik urrundu zenean (Makiavelo, esaterako, aitzindari izan zen politika moraletik eta erlijiotik bereizten). Bide horretatik jotzen zuten politikotasunaren eredu normatibo berriak garaturik agertu ziren dagoeneko aro modernoaren hastapenetako pentsamenduan (pentsa dezagun Makiavelo, Bodino, Hobbes, Spinoza eta beste batzuen ekarpenetan).

Hartara, unibertso politikoak nortasun propioa eskuratu zuen autonomia irabazi zuen ginoan eta sekularizatu zen neurrian. Aipatu ditugun bi bilakabideok adierazpen enpirikoetan —gizarte-eraldaketetan— eta pentsamenduan islatu ziren. Halaber, gizarteak aurre egin zion esparru indartsu berriari, bere autonomia aldarrikatuz; hori dela eta, gizartea botere politikoari mugak jartzen saiatu zen apurka-apurka. Estatuarekin zeuzkan harremanetan gizarte modernoak lorturiko beregainatasuna, hala ere, hirugarren esparru baten bereizketari loturik zegoen, hain zuzen ere, esparru ekonomikoaren osaketari.

Sozialtasunaren eta politikotasunaren arteko banaketa, beraz, politikaren eta ekonomiaren arteko bereizketarekin batera ulertu behar da ezinbestean. Beste hitz batzuekin esanda, Estatu modernoaren, gizarte modernoaren eta kapitalismoaren garapena aldibereko prozesuak izan dira Europako mendebaldean. Hiru esparruen osaketa elkarren arteko tentsioan burutzen da. Halatan, esparru ekonomikoaren hazkundeak mugak ezartzen dizkio egitura politikoari eta, hori egitean, interbenzio politikotik at geratzen diren gune sozialen garrantzia nabarmentzen du. Ekonomistek —Smith, Ricardo eta beste pentsalari librekanbistek— ongi erakusten dute, hain zuzen ere, badagoela estatuak arautu ezin duen elkarte-bizitzaren atal bat, printzipio propioen arabera garatzen dena. Esparru ekonomikoaren eraketak eragina dauka, hortaz, gizartearen beraren kontzientzia hartzean. Zenbat eta gehiago murriztu estatu absolutuaren jarduera-gunea eta zenbat eta gehiago baieztatu estatu

mugatua, hainbat eta espazio handiagoa uzten zaio estatuaz kanpoko bizitzari, hau da, gizarte autonomoaren posibilitateari.

1.2. POLITIKAREN AUTONOMIARI BURUZKO EZTABAIDA TEORIKOA

XVIII. mendeaz geroztik, Gizartea eta Estatuak egoki irudikatzeko baldintzak dagoeneko garatuta zeudenez, bien arteko uztarduraren auziari buruzko gogoetak ugaritu egin ziren pentsamenduaren barruan. Izan ere, horixe da pentsamendu politiko modernoaren gai nagusietako bat, alegia, zein modutako lotura —eta, alderantziz ere, zein mailatako autonomia— egotzi behar zaien bereizita agertzen diren bi esparruei, hots, gizarteari eta politikari. Ba al dauka esparru politikoak funtzionamendu-logika propiorik ala gizarteko beste faktore batzuen menpe ulertu behar da beraren jarduera? Noraino iristen da politikaren autonomia? Eztabaida-ardatz horren inguruan, bi gogoeta-lerro klasiko nabarmentzen dira XIX. mendetik aurrerako pentsamenduan.

1.2.1. Politika beste gizarte-faktoreen menpeko

Gizartearen eta Estatuaren arteko bereizketa hasiera batean modu desberdinetan adierazita aurkitzen dugu entziklopedisten eta Rousseauen lanetan, filosofo eskoziarren idazkietan —bereziki Adam Fergusonen *Essay on the History of Civil Society* liburuan— edo zuzenbideari eta estatuari buruzko Hegelen filosofian. Horien ostean, baina, politikotasunaren ulermena gaur egunera arte zeharo baldintzatu duen tradizio indartsuari eman zion hasiera Marxek. Ikuspegi klasiko horrek, labur esanda, politikaren autonomia ukatzen du. Marxen ustez, ez harreman juridikoak ezta estatu-ereduak ez dira berez azaltzen. Aitzitik, bizitzaren baldintza materialetan daukate sorburua. Horregatik, Hegelek gizarte zibila deitzen zuen horren nolakotasuna ekonomia politikoan bilatu behar dela adierazi zuen Marxek.

Politikaren ikuskera hori, jakina, gizarte-eredu kapitalistarekin batera garatu zen. Izan ere, kapitalismo modernoak aurreko ekoizpen-sistemak baino askoz ere indar eta independentzia-maila handiagoak erdietsi zituen. Testuinguru horretan ulertu behar dira, bada, modernitatearen hastapenetan “gizarte zibila” eta “gizarte burgesaren” artean egiten den identifikazioa, ekonomia politikoari onartzen zaion garrantzia zientzia “politiko” gisara, eta garaiko pentsamenduan arazo nagusi modura agertzen diren harremanen auzia: produkzioaren, jabetzaren eta lanaren esparruaren, eta botere politikoaren esparruaren arteko harremanak, alegia. Kezka horiek dagoeneko argi adierazita agertzen dira Hegelen *Zuzenbidearen Filosofia* lanean. Bertan, gizarte zibilaren sorrera mundu modernoaren lorpena dela baieztatu da, eta librekanbisten ereduaren arabera definitzen da hura. Besteak beste, gizarteko kideen elkartzea beren premien arabera, sistema juridikoaren arabera —gizakien eta jabetzen segurtasuna bermatzeko tresnak ematen baititu sistema juridikoak— eta kanpoko eraketaren arabera egiten dela esaten da, gizakien interes partikular

zein komunak bete ahal izateko asmoarekin (Bottomore, 1982: 12). Hegelen ustez, modu horretan eratuta dagoen gizarte zibilak arazo desberdinak aurkezten dizkio Estatuari hark konpon ditzan. Batez ere, elkarrekin loturik dauden aberastasunaren eta pobrezia-aren hazkundera eta prozesu horrek sortzen dituen gatazka sozialak.

Idea horiek guztiak oso garrantzitsuak izan ziren teoria marxistaren garapean. Hala ere, pentsamendu hegeliarraren eraldaketa sakona ekarri zuen marxismoak. Hegelek irudikatutako estatuaren ideia, goreneko unibertsal modura, sus-traitik astindua izan zen Marxen gogoetan. Halatan, Marxek ukatu egin zuen estatuan gaindi daitezkeenik gizarte zibilaren kontraesanak. Are gehiago, egitura politikoa modernoa ekoizpen-sistema kapitalistarekin eta mundu ekonomikoan sortzen diren aberastasunarekin eta pobrezia-arekin zuzenean nahastuta dagoela berretsi zuen. Hartara, Estatuak zerikusia dauka gizartearen baitan burutzen diren klase-gatazka larriekin. Harrez gero, Marxengandik aurrera garaturiko pentsamendu-ildoan egitura politikoa beste prozesu sozial batzuen menpeko elementutzat jo zen, bereziki ekoizpen-modu partikular batek eragiten dituen indarren menpeko aldagaitzat.

1.2.2. Politika aldagai aske modura

Ikuspegi horrekin batera, hala ere, badago pentsamendu politikoa-aren barruan gizarte zibilaren eta estatuaren arteko harremana modu desberdinean ulertzen duen bigarren perspektiba bat. Ikuspegi alternatibo horren adierazpen goiztiarra Tocquevillek aurkezturiko “mundu berriarentzat beharrezkoa den politikaren zientzia berria” aurkitzen dugu. Zientzia hori, haren ustez, demokraziaren garapenaz eta gizarte “modernoaren” eraketaz arduratzen zen —*Ancien Régime* delakotik urrunduz—, bai Frantzia bai Estatu Batuetan. Tocquevilleren ikusmoldearen bereizgarritasuna berak egindako aukeran hezurmamitu zen. Izan ere, XVIII. mendetik aurrera mundu berri bat sortzen ari ziren bi korronte iraultzaileak aztertzean —iraultza demokratikoa eta industria-iraultza—, Marxek ez bezala, lehenengoan jarri zuen bere arreta eta lehentasuna eman zion gizarte modernoaren osaketan.

Oso argi zeukan Tocquevillek mugimendu demokratikoa-aren ondorioak nola-koak diren. Iraultza demokratikoa-aren ekarpen nagusia, haren esanetan, berdintasun soziala da, oinordetzako bereizketa hierarkikoa-ak ezabatzen dituelako eta harrez geroztik gizarteko kide guztientzako eskuragarri geratzen direlako enpleguak, sariak eta ohoreak. Demokraziaren aldeko joerak badauzka, dena den, alde onak eta kaltegarriak aldi berean. Batetik, gobernu demokratikoa- gehienengozatzea bermatzeko jarduna beteko luke seguraski, eta gizarte liberal moderatua eta ordenatua eratu ahal izango kuke. Bestetik, baina, gizarte-berdintasunaren bilaketa —“grina asegaitza” komunitate demokratikoetan, Tocquevilleren ustez—, gizakien askatasunaren aurretik jar daiteke eta, orduan, bien arteko gatazka sortu ahal da (Tocqueville, 1989).

Tocquevillek, dudarik gabe, ondo ezagutzen zuen mugimendu demokratiakoaren testuinguruan garaturiko industria-kapitalismoaren errealitatea. Hala ere, mugimendu demokratikoari esleitu zion bizitza sozialaren baldintzak sorrarazteko gaitasun independentea. Geografiaren, legeen eta tradizioen eraginez —hartara, bilakabide desberdinak osatuz herrialde desberdinetan, Estatu Batuetan eta Frantzia— esparru politikoak berariazkoa duen autonomia erakusten du bere garapenean eta jardunean.

Harrezkero, bereziki marxismoari egindako kritika zuzenaren barruan, hainbat autorek landu dute politikotasunaren autonomiaren ideia. Izatez, ikuspegi hori teoria politikoaren erreferenteetako bat izan da XIX. mendetik aurrera. Hein batean, Max Weberren soziologia politikoaren bereizgarria ere bada (Giddens, 1995; 1997). Ikuspegi hori erraz nabarmentzen da Max Weberrek administrazio-baliabideen kontzentrazioari buruz egindako azterketan —produktzio-baliabideen kontzentrazioa bezain garrantzitsutzat jotzen baitu prozesu hura— eta, oro har, Estatuaren boterearen inguruko lanetan.

Ikusmolde marxistari zuzenean aurre eginez, indar politiko independenteen garrantzia beste modu batean berretsi zen Mosca eta Paretoen eliteen teorietan ere. Teoria horiek, aldaera desberdinetan, bizitza sozialaren egitate unibertsal eta aldaezin modura hartzen dute eliteen menperatzea, gizakien desberdintasun psikologikoen ondorioz sortzen direla pentsatuz.

Adierazpen teoriko askoren laburpena izanik, zirrimarratu diren bi pentsamendu-eredu horietako bakoitza modu eskematikoan eta muturrera eramanda aurkeztu da hemen. Horren helburua izan da politikotasunaren autonomiaren alde egin duten ikusmoldeekin batera politikotasuna beste indar sozial batzuen menpe jartzen duten ildoak ere garatu direla erakustea. Hala ere, helburu didaktikoa duten sinplifikazio horiez gain, aitortu beharra dago alde bietako ideiak zehaztaperen eta ñabardura handiekin azaldu direla, eskuarki. Hartara, esparru politiko eta sozialaren arteko uztardurak modu konplexuan ezarri dira gogoeta teoriko gehienetan, eta etengabe jaso dira ikusmoldeen arteko elkarreraginak, baita aldaketa historikoen ondorioak ere (Bottomore, 1982).

XX. mendez geroztik, ohiko dikotomia adierazpen akademikoetan islatu da, besteak beste. Izan ere, 40ko hamarralditik aurrera erakundetu dira, lehendabizi Estatu Batuetako unibertsitateetan eta ondoren Europakoetan, gizarte modernoetako esparru politikoak aztertzen dituzten diziplina edo irakasgai akademikoak, hala Soziologia Politikoak nola Politika-Zientzia. Bi diziplina horien arteko banaketaren zioak interes eta lehia akademikoetan bilatu behar dira batik bat, baina egia da, politikaren autonomiaren inguruko eztabaidaren zantzuak ere hautematen direla bereizketa horretan. Haustura luzearen ondoren, hala ere, azterketa-eremu berbera izanik, ahalegin ugari egin dira azken urteotan zatikapen analitikoak gainditzeko eta diziplinarteko lanetik abiatuz aztergaiaren berreraikuntzari ekiteko (Llera, 1997).

1.2.3. Soziologiaren eta Politika-Zientziaren abiapuntuak

Modernitatearen lehen garaian sorturiko pentsamenduan politikaren autonomiaren inguruko hausnarketa franko burutu bada ere, gaur egun ez dira gutxiago gizarte-sistemaren eta esparru politikoaren arteko harremana azaltzeko egin diren interpretazio-saioak. Gizartearen eta politikaren arteko harremana era askotara ulertu eta azaldu dute gizarte-zientzien barnean garatu diren diziplina desberdinek, Soziologiak eta Politika-Zientziak batik bat. Braungarti jarraiki, politikotasunaren eta sozialtasunaren arteko lotura hautemateko hiru eredu nagusi sortu dira XX. mendean (Braungart, 1981).

Badago lehen eredu bat, egitura sozialak gogoetaren abiapuntutzat hartzen dituen. Gizarte-egiturek prozesu politikoetan dauzkaten eraginak aztertzea da haren helburua. Termino analitikoetan adierazita, ikusmolde horrek sozialtasuna aldagai asketzat hartzen du, haren baitan biltzen baitira, ustez, fenomeno politikoaren azalpenen oinarriak. Politikotasuna, aldiz, gizartearen menpeko faktore moduan agertzen da. Politikaren oinarri sozialen azterketa funts gisa daukan ikusmolde hori da, hain zuzen ere, Soziologian gehien erabili dena. Halatan, azterketa soziologikoaren interesgune nagusia izan ohi da ikertzea faktore sozialen eragina boteraren banaketan, partaidetza politikoan, herritarren* portaeretan, aldaketa soziopolitikoetan eta hainbat eta hainbat prozesu politikoetan. Soziologia politikako lan askoren azpian sumatzen den arren, ikusmolde horrek kritika ugari jaso ditu. Aldebakarreko interpretazioak egitea egotzi zaio gehienbat, zeren, azken finean, auzi politikoak epifenomeno gisa aztertzen baititu.

Bigarren eredu batek boterearen jatorri politikoak hartzen ditu aintzat, hau da, sistema politikoaren eta faktore politikoaren azterketa kokatzen du bere gogoetaren gunean. Ondorioz, politikaren eremua gizarte-egituretatik aldentuta agertzen da, zeren egitura horien abstrakzioa egiten baita argi eta garbi. Horixe da Politika-Zientziaren aztertzailerik gehienetan erabili ohi duten abiaburua. Hein batean, aurreko ikuspegiak eskaintzen duen interpretazioaren akats berberak dauzka oraingo azalpenak ere. Oraingoan, baina, faktore sozialak gertakari hutsak baino ez dira jarduera politikoaren ondoan. Azken batean, itxuraz, jarduera politikoa berez esplikatzen da, beste gizarte-eraginik aintzat hartu gabe.

Hirugarren aukera bat ere aurkitzen dugu gaur egun gizartearen eta politikaren arteko lotura ulertzeko moduetan. Botere-egiturek eta, bereziki, erabaki politikoaren prozesuek gizartearen daukaten eragina aztertzea dauka xedetzat azken ikuspegiak. Horrenbestez, politika —erabaki politikoetan adierazita— aldagai aske bihurtzen

* Arazoa izan dugu testuan zehar “*herritar/hiritar*” hitzaren erabilerarekin. Bai Soziologian eta bai Politika-Zientzian, “*ciudadano/a* (g) / *citoyen* (f) / *citizen* (i)” hitzaren euskarazko ordaina emateko orduan, zalantza agertu zaigu termino egokia aukeratzean. Bi aukerak egokiak izan daitezkeen arren, badirudi nagusitzen ari dela “*herritar*” hitza, hain zuzen ere euskarazko “*hiritar*” hitzak konnotazio markatua duelako eta neurri batean gehiegi adierazten duelako hiriko izaera.

da, eta gizartea, berriz, menpeko. Ikuspegirik arruntena izan ohi da politika publikoen azterketan, hots, *policy analysis* gisara ezagutzen den ikerketa-esparruan. Boterearen erabilera errealak gizarte-sisteman, alegia, gizarte-taldean kokapenean dauzkan ondorioak neurtu gura dira ikerketa-mota horretan. Aipaturiko ikuspegiak, baina, erabaki politikoen gainean eragiten duten baldintzapen sozialen bazterketa dauka abiaburu.

1.3. IKUSMOLDEEN ANIZTASUNA POLITIKAREN AZTERKETAN

Diziplina baten barruan dauden korronteez edo eskolek jakintza-arlo batean egon daitezkeen desberdintasunak adierazten dituzte; desberdintasun horiek guztiak azterketaren objektua ulertzeko eran, errealitate sozialetik datuak lortzeko moduan eta ondoren burutu behar den teorizazio-prozesua bideratzeko moldean hezurmitzen dira. Politikaren azterketaren arloari dagokionez, politikaren izaera eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko premisa desberdinak hartzen dituzte abia-burutzat korronte teorikoek. Era askotako ikuspegi horien berrikusketa egitean, politikaren azterketaren inguruan dauden diziplinen —hots, Soziologia Politikoaren eta Politika-Zientziaren— bilakaeraren irudi bat osatzen dugu. Izan ere, gaur egun eredu guztien ekarpenak jasotzen diren arren, ikuspegi bakoitza nagusi izan da garai jakin batean.

1.3.1. Diziplinen barne-korrontek

Perspektiba historikotik abiatuta, azterketa politiko garaikideetan aipatu behar den lehendabiziko ikuspegia *teoria normatiboa* da, tradizio handiko eredia izan dena joan den mendeko 60ko hamarraldira arte. Teoria politiko normatiboaren interesgunea kontzeptu moralen azterketa da, baita haien aplikazioa ere harreman eta praktika politikoetan. Azken batean, “egin beharrekoa” azaltzen du teoria normatiboak, egintza politikorako arauak proposatuz. Pentsalari batzuek, haatik, zalantzan jarri dute horrelako proposamenen balioa, eta ariketa antzutzat jo dute definizioetan egiak diren proposizio tautologikoak ematea, nahiz eta gero errealitatean betetzen ez diren.

Teoria normatiboekin batera, *azterketa instituzionalistak* dira analisi politikoen hastapenetan aurkitzen ditugun eredu nagusienetakoak. Erakunde politikoen ikuspegiak sistema politikoaren arau, erabide eta organizazio formalen azterketan jartzen du arreta, elementu horiek praktika politikoan daukaten eragina ikusi ahal izateko. Azterketa instituzionalista tradizionalak jaso dituzten kritikak haien metodoen ahulezian eta emaitzen ezaugarri antiteoriko eta deskribatzaileetan oinarritu dira. Alabaina, instituzionalismoari bereziki aurpegiatu zaion akatsa demokrazia liberalaren bertuteen ikusmolde idealizatutik abiatuz proposamen preskriptiboak egitea izan da.

Arestian aipaturikoak baino berriagoa dugu *ikuspegi konduktista*. European eredu askoren artean bat gehiago bada ere, Estatu Batuetan gaur egun ikuspegi nazusia dugu diziplinaren barruan (Stoker, 1997). Konduktismoak jokabide politikoa aztertu nahi du, hala maila indibidualean nola maila kolektiboan. Beraren sorrera eredu normatibo eta instituzionalisten kritikan oinarritzen da. Hain zuzen ere, azterketa deskribatzaileak eta zehaztasunik gabekoak egitea egotzi zion instituzionalismoari. Konduktismoaren arabera, instituzioak ez dira jokabide erreala bezain garantzitsuak. Izan ere, erakundeen araudiek gizakiek egin beharrekoa adierazten dute; baina, eredu konduktistaren arabera, zientzialariek instituzioa ez ezik benetako praktika behatu behar dute. Era berean, ikuspegi normatibotik bereiziz, konduktismoaren barruan garrantzi handia eman zaio egitateen eta balioen arteko banaketari. Hartara, hasierako konduktistek egitateetan oinarrituriko teoriak sortzeko asmoa zeukaten, balioak alde batera utziz. Legeak bilatuz, orokortze-ariketak eginez, ikuspegi “zientifikoagoa” eman gura izan zioten politikaren azterketari XX. mendeko 50 eta 60ko hamarraldietan.

Dena den, gehiegizko asmo hori saihestuta geratu da denborarekin. Konduktismoak jaso dituen kritiken artean, nabarmentzekoa da egitateak ulertzeko erabili duen moldea sinpleegia dela dioena. Gaur egun konduktistek onartzen dute egitate hutsek ez dutela berez ezer adierazten, eta ez dutela esanahirik eskuratzen marko teoriko baten barruan ez bada. Are gehiago, garrantzitsua denaren inguruko ideiek baldintzatu egiten dute zeharo behaketaren prozesua eta aukeratzen diren tresnak. Beraz, teoria eta egitateak ezin dira independente modura hartu. Horrekin batera, lege “zientifikoak” erdiesteko ahalmena zalantzan jarri ondoren, konduktismoak asmo apalagoak agertzen ditu oraingo azterketetan.

Hirurogeiko hamarralditik aurrera *hautaketa arrazionalaren ereduak* ere oihartzun handia izan du politikaren azterketan. Zenbait azterketa ekonomikotan erabilitako jarraibideari ekiten dio teoria horrek. Haren abiapuntu esplizitua da esatea ezen portaera politikoa interesen arabera jokatzaren duten gizabanakoen erabakien emaitza dela, eta hortaz, arrazionaltasunak zuzendutako jokamoldea dela. Alta, ikuspegi arrazionalari zuzendutako kritikek dioten moduan, hautaketa arrazionalaren ereduak ez du aintzat hartzen gizakiaren izaera bere konplexutasun psikologiko eta osagarri irrazionalekin. Horrela, iritzi kritikoen arabera, ikuspegi osoago eskaintzeko, zabaldu egin beharko luke bere aztergaia, askotan jokabide politikoa bultzatzen duten motibazio altruistak eta moralak kontuan hartuz.

Feminismoak politikaren azterketan izan duen eragina ere handia izan da azken urteetan, aldez aurretik finkatutako elementuen berrikusketa ekarri baitu diziplina barrura. Hartara, zalantzan jarri dira teoria normatiboaren ikuspegi ortodoxoak eta korrante instituzionalisten eta konduktisten azterketa enpirikoak, generoaren aldagaia gogoan hartu ez duten heinean. Feminismoaren ekarpenak erabakigarriak izan dira zientzia politikoaren mugarriak zabaltzerakoan, nahiz eta ikusmolde gisa bazter-kokapena daukan beste korronteen aldean.

Diskurtsoaren analisiak, berriz, feminismoak baino eragin txikiagoa izan du. Postmodernismoaren eta zientzia politikoaren arteko loturak ezarri nahi izan ditu eredu horrek. Izan ere, diskurtsoaren analisiaren arabera uste da ezen sozialtasunaren esanahia egituratzea dela egitate politikorik garrantzitsuena. Halatan, esanahi-sistemek edo “diskurtsoek” jarduera politikoak ulertzeko moduetan daukaten eragin eratzaillea aztertzen du ikuspegi horrek. Oro har, inork gutxik ukatzen du hizkuntzak, sinboloek eta eztabaida politikoen egituraketak gizarte konplexuetako politikagintzaren nondik-norakoak eskuratzeko daukaten garrantzia. Nolanahi, diskurtsoaren analisiak sarriegi orokortze- eta abstrakzio-maila handiak erabiltzen ditu ondorio baliagarriak sortzeko.

Aipatu diren sei ikusmoldeekin batera, *marxismoaren* ekarpena nabarmendu behar da politikaren azterketan. Besteak beste, pentsamendu marxistaren eragina politikaren adieraren zabalkuntzan hezurramitu da politikari buruzko gogoeta teorikoan. Izatez, indar sozialek eta ekonomikoek esparru politikoarekin daukaten harremana landu dute autore marxistek gai nagusi moduan. Haatik, diziplinaren barruan dauden zenbait iritzi ortodoxoren arabera, marxismoa ez litzateke ikuspegi berezitu bat gehiago izango, ezpada politikagintzaren azterketa-esparrua gainditzen duen pentsamendu-moldea (Almond, 2001). Bada, materialismo historiko marxistak zalantzan jartzen du, argi jarri ere, politikaren eta egintza politikoen izaera autonomia, baita politikagintza gizarteko beste prozesuetatik berezita ulertzeko ahalbidea ere.

Marxismoak politikaren ohiko azterketan planteatzen dituen aldaketen ildoan, esan beharra dago ezen, gizartea eta politika kontzeptu gisa bereizten diren une beretik, bi banaketa-gune sortzen direla hausnarketa teorikoan. Lehenengoa, aurreko atalean aipatu den moduan, politikotasunaren autonomiaren inguruan eratzen da. Horrela, esparru politikoak faktore sozial, ekonomiko eta ideologikoei buruz daukan independentzia-maila bihurtzen da ohiko korrante desberdinen kokapenaren irizpide nagusi. Bestetik, politikaren autonomia aldarrikatzen duten ikusmoldeak daude, hain zuzen ere, gaur egun diziplina autonomoaren muina osatzen dutenak. Produktio-harremanek bizitza politikoaren gainean ezartzen duten eragina azpimarraztean, teoria marxista —bere formulaziorik ortodoxoenetan bederen— ikuspegi horri kontrajartzen zaion iritzi-ildoan kokatzen da.

1.3.2. Adostasuna versus gatazka

Politikaren azterketari dagokionez, lehen sailkapen-irizpidea autonomiari buruzko auziak baldintzatzen badu, bigarren eztabaidagune nagusia ordena/aldaketa dikotomia ardatz hartuta osatzen da. Izan ere, pentsamendu soziologikoaren eta politikoaren hausturagune klasikoa dugu hori. Beraz, gaur egungo pentsamendu politikoan marxismoak eta 60ko hamarralditik aurrera sortu diren gatazkaren teoriak aldaketaren eta gatazkaren ideiak nabarmentzen dituzten bitartean, beste ikusmolde batzuek sistema politikoen egonkortasuna eta balioen inguruko gizarte-adostasuna

hartzen dute abiaburutzat. Halatan, sistema politikoaren iraunkortasunaren bermeak argitzea daukate helburutzat azken horiek. Soziologiaren barruan, ikuspegi funtzionalistaren koordinatuetan landu diren azterketek ongi aski ordezkatzan dute ikuspegi kontserbadore hori.

Politikaren ikuspegi integratzailea eta ikuspegi gatazkatsua ahalbidetzen dituzten gizarte-ordenari buruzko abiaburu horiek gogoeta politikoaren historian sustrai sakonak dauzkaten filosofia-ildoetatik datoz. Hartara, gaur egungo politikaren ikusmolde batzuk oinarri aristotelikoa dute, hots, adostasunaren eta lankidetzaren ideiak azpimarratzen dituzte nabarmen. Beste batzuk, berriz, oinarri makiavelikoa erakusten dute, gatazkaren ideian oinarrituta daude eta (del Aguila, 1997). Lehenengo ikuskeraren arabera, banakoak gizaki bihurtzen dituen jarduera da politika, zeren denen ardura diren gauzei buruzko deliberazio komunean hitza eta limurtasuna erabiltzera behartzen baititu gizakiak. Ildo horretan, politikak oso toki garrantzitsua betetzen du gizarte-bizitzan, giza elkarteak partekatzen duen etikaren sortzailea baita, azken finean politika lankidetzaren sortzailetzat jotzen delako. Nabari denez, politikaren ikuspegi atsegina dugu hori: elkarte politikoaren izaera hezitzailea eta etikoa nabarmentzen du, gizakiak eginkizun komun batean biltzen dituen elkarlana agerian utziz.

Politikaren definizio makiavelikoen, aldiz, politikagintza funtsean jarduera gatazkatsua eta urratzailea dela erakusten dute, ezmorala ere maiz. Makiaveloren hitzetan, politika egin gura duenak “gaizkiaren bidean” barneratzeko prest egon behar du, alegia, bere etika lortu beharreko helburu politikoaren menpean jartzeko gertu. Izatez, bigarren adiera horretan, politika ez da inolaz ere lankidetzajardun modura hautematen, gizakien, taldeen, interesen eta mundu-ikusmoldeen arteko lehia gisara baizik. Hartara, politikaren zientzia boterearen zientziatzat jotzen da ikuspegi horretan.

Jakina, ikuskera biak aldiberekoak izan ohi dira errealitate enpirikoan. Bada, boterea eta legitimitatea, gatazka eta adostasuna, elkarrekin agertzen dira edozein sistema soziopolitikotan. Gogoeta teorikoan, baina, osagai normatiboek toki garrantzitsua izaten dutenez eta abiapuntu antropologikoak eta ideologikoak eraginkorrak direnez, integrazioaren aldera edo gatazkaren eremura makurtzen dira behaketak.

Horiek horrela, gaur egungo pentsamendu politikoaren ikusmolde nagusiek ere hautua eginga dute. Batzuek bortxaren eta indar hertsatzaileen erabilera nabarmentzen dute gizarte-bizitzaren eta elkarte politikoaren sorburu modura. Eraketa politiko modernoari dagokionez, eredu horretako ordezkariak argi erakusten dituzte Estatuak menperatze-erakunde gisa darabiltzan zapalkuntza-baliabideak. Oro har, pentsamendu-ildo horrek elkarte politikoaren barnean kontrajarritako interesak borrokatzen direla eta adostasun politiko eta integrazio-egoera oren atzean indarkeriazko eta hertsapenezko historia luze bat egon ohi dela gogorarazten du. Hobbes eta Marx moduko autoreen ikuspegi antropologikoan oinarritzen

den tradizio horretatik elikatzen dira gaur egungo korrante marxista eta gatazkaren bestelako teoriak.

Integrazioaren aldeko teorien artean, era askotako argudioak aurkitzen dira. Bi bereiziko ditugu hemen. Lehenengoaren arabera, elkarte politikoaren oinarria gizakien interes pribatuetan datza. Beste modu batean adierazita, gizakiek beren interesak burutzeko duten premiak butzatuta eratzen dute elkarte politikoa. Hartara, gizakiak nahasturik daude ordena politikoaren sorreran eta iraupenean, beren interesen alde jarduteko segurtasuneko testuingurua eta onura eskaintzen dizkielako. Filosofia liberalaren ohiko argudio-ildo hori hartzen du abiapuntutzat gaur egungo liberalismo politikoak ere.

Badago hirugarren ikusmolde bat, ordena sozial eta politikoaren funtsa giza elkartearen balio komun onespenean oinarritzen duena. Oraingo honetan ez dira interes pertsonalak elkarketa-prozesua bultzatzen dutenak, ezta hertsapena ere taldea biltzeko erabilitako tresna. Gizarte-ordena bat ezartzeko, garrantzitsuagoa da arauen eta balioen inguruko adostasuna erdieste, zeren, azken batean, elementu horiek bermatzen baitute gutxieneko egonkortasuna eta elkarte-bizitza baketsua. Durkheim eta funtzionalismo amerikarraren zantzuak dauzkan tradizio horretatik edaten dute gaur egungo politikaren ikuspegi errepublikarrak eta ikuspegi komunitaristak.

Aipatu diren gatazkaren eta ordenaren inguruko ikusmoldeok, jakina, errealtate politikoaren alde bat jartzen dute agerian, besteak ezkutatu. Halatan, lehen tradizioak ez du arretarik ipintzen legitimazio- eta adostasun-prozesuek bizitza politikoan daukaten garrantzian. Bigarrenak ez ditu aintzat hartzen interesen lehiak elkarte politikoan sorrarazten dituen gizarte-asimetriak eta gatazkak. Hirugarrenak baztertu egiten du ordena politikoaren atzean dagoen indarkeria-osagaia, baita ezkutatu ere adostasun sistemikoak lortzeko bete behar diren menperatze simbolikoko prozesuak. Hartara, errealtatearen alderdi bat irudikatzen duten heinean, tipo ideal modura onartu behar dira, batez ere beren ekarpenei dagokienez.

1.4. POLITIKAREN AZTERGAIA GAUR EGUN

Ikuspegi teoriko eta analitikoaren aniztasunak erakusten digunez, esparru politikoaren gogoeta teorikoari erreparatzen diogunean, mugarri zehaztugabeak eta aldakorrak dituen alor baten aurrean gaude. Egiaztapen hori, hala ere, beste gizarte-zientzia batzuetara ere zabal daiteke. Egiazki, gai eta eztabaida zenbaiten inguruan eratzen diren ikusmolde analitiko zeharo ezberdinez osaturik agertzen zaigu politikaren azterketa-eremua.

Desberdintasunak desberdintasun, badago politikaren azterketari hasiera ematen zaionetik ezinbestean zehaztu beharreko funtsezko elementu bat. Hain zuzen ere, ikusmolde desberdinek eskuarki burutu behar izaten duten lehenengo

betekizuna politika kontzeptuari eransten zaion adiera eta edukia erabakitzea izan ohi da. Izan ere, diziplina akademiko guztiak abiatzen dira beren objektua edo aztergaia zedarriz, zehaztapen horrek definitzen baititu, hein handi batean, ondoren azter daitezkeen gai-multzoak eta sor daitezkeen arazo teoriko eta metodologikoak. Haatik, politikaren definizioa bera eztabaidagai izan ohi da eskuliburuetan eta oinarrizko testuetan ere. Zaila da, hortaz, definizio adostua eta bateratua eskaintzea gaur egun.

Zernahi gisaz, erabateko adostasunik erdietsi ez den arren, gai horri dagokionez hauteman daiteke aspaldion norabide berean zuzentzen den joera gero eta nabarmenagoa politikaren azterketan: oro har, ikusmoldeak ikusmolde, politikotasunaren mugak arian-arian zabaldu egin direla egiaztatzen da azken urteetan. Hartara, gero eta atal eta interesgune gehiago bildu ditu politikaren analisi-esparruak.

Ibilbide luzea egin da, beraz, joan den mendeko 50eko hamarralditik gaur egunera arte. Orduan, Politika-Zientzia eta Soziologia Politikoa Estatu Batuetako akademian erakundetu ziren garaian, azterketa politikorik gehienek —Politika-Zientiakoek bereziki— ikuspegi guztiz instituzionalistak hartzen zituzten abia-burutzat. Horrenbestez, parlamentuak, gobernuak eta administrazio publikoetako erakundeak zeuzkaten batik bat aztergai modura. Geroago, konduktismoaren eraginez, arreta-esparrua beste gai batzuetara hedatu zen, hauteskundeetara, alderdi politikoetara eta presio-taldeetara, besteak beste, haietan burutzen baitzen, ohiko erakundeetatik kanpo, gizakien portaera politiko ikusgarria (Stoker, 1997).

Zabalkuntza-bide horretan burututako bilakaeraren indarra areagotu egin da azken hogeitaz urteotan; akademian nagusitu den diziplinarteko lankidetzaren eraginez, besteak beste, gero eta handiagoak izan dira politikotasunaren definizioa zabaltzearen aldeko presioak. Beste era batera adierazita, gero eta indartsuago agertu da politika bere testuinguru sozialean kokatzearen aldeko joera. Halatan, hein batean, lehenengo gizarte-zientzialariek jorratu zituzten planteamenduetara itzuli da gaurko azterketa politikoak.

Lehenengo gizarte-zientzialariak oso eklektikoak ziren bai beren interesei zegokienez baita gizarte-jokamoldearen analisi-metodoetan ere. Haien kezka ez zen Politika-Zientzia edo Soziologia; seguraski ez zuketzen gaur egungo bereizketa hori ulertu ere egingo. Haien ustez, gizartea osotasunean aztertu beharreko entitate zen; hartara, ikuspegi holistiko batetik abiatzen ziren betiere. Tocqueville, Marx, Weber, Pareto eta Mosca bezalako pentsalariak lehen garai horretako erreferentziako izen handiak dira Politika-Zientzian eta Soziologian. Baina, gizarte-zientzien garai klasikotik aurrera, ikuspegi orohartzaile hori errotik aldatu duten prozesuak burutu dira. Alde batetik, gizarte aurreratuetako garapen akademikoak jarduera akademikoaren profesionalizazioa bultzatu du. Bestetik, ikerkuntza eta azterketa-jardueren bereizketa instituzionalizatua areagotu da. Dagoeneko ezinezkoa da ikertzaileek eta adituek heziketa klasiko berbera jasotzea. Aitzitik,

espezializazioa gero eta handiagoa da, eta indar handiz islatzen da goi-mailako heziketaren erakundeek agertzen duten antolaketa. Halatan, politikaren azterketari dagokionez, diziplina independenteen garapena ekarri du gizarte-zientzien konpartimentalizazioak lehen une batean.

Baina, arestian aipatu den bezala, azken urteetako Politika-Zientziak urrats handiak egin ditu bere hasierako politikaren adiera murriztailea irekitzeko eta kideko diziplinen ekarpenak bereganatzeko (Dogan, 2001). Soziologiaren egoera, aldiz, pixka bat desberdina da, hastapenetatik gizarte-bizitzaren zientzia unibertsal modura aldarrikatu duelako bere burua. Horrenbestez, era guztietako gizarte-harremanak hartzen ditu bere barnean haren jardunak, eta era guztietako gizarte-fenomenoak jasotzen ditu bere eskuduntzapean.

Horiek horrela, politika kontzeptuari erantsi zaizkion adiera hertsia eta zabalak diziplinen bilakabide historikoari lotuta egon dira, hein handi batean. Politika-Zientziaren lehen aroan, Estatuaren eta bere erakunde zedarriei uztarturik agertzen zen politikaren azterketa. Hartara, Politika-Zientziaren eginkizuna Estatuaren erakunde deskribapenera eta horretara soilik mugatzen zen hasiera batean. Soziologia Politikoa dagokionez, M. Duverger-ek aspaldi ezagutarazi zuen aukera bikoitza. “*Soziologia politikoa, Estatuaren zientzia ala boterearen zientzia?*” galdetzen zuen soziologo frantsesak (Duverger, 1983: 24, 30). Antzeko alternatibak aipatzen zituzten beste autore batzuek ere Soziologia politikoa lehen eskuliburuetan (Horowitz, 1977; Cot eta Mounier, 1983; Dowse eta Hughes, 1986). Aukera horien aurrean, denek egiten dute politika gizartearekin lotzearen aldeko hautua. Ikuspegi murriztailearekin batera bazegoen, beraz, poliki-poliki gailendu den bestelako abiapuntua. Azken horren arabera, gizarte-harreman guztietan nabarmentzen da politikaren presentzia. Izan ere, politika boterearen erabileraz eta garapenez arduratzen dela azpimarratzen du ikuspegi horrek. Ondorioz, boterea gizarte-talde eta erakunde orotan sortzen denez, politika kontzeptuaren norainokoa lehen gainbegiratuan dirudiena baino askoz ere zabalagoa izango litzateke. Halatan, “*dena —edo ia dena— da alde batean politika, eta deus —edo ia deus— ez da guztiz politika*” (Duverger, 1983: 2).

Politika ulertzeko modu hori Weber-en adiera klasikoan oinarritzen da:

Bada, politika izango litzateke gure ustez: boterean parte-hartzeko nahia, bai Estatuaren artean, bai Estatuaren barruan, edo hark barnean hartzen dituen giza taldeen artean (...) Auzi bat auzi politikoa dela esaten denean (...) horrek esan gura du ematen zaion erantzunean tartekoak direla boterearen erabilera-, kontserbazio- eta aldaketa-interesak (Weber, 1979: 1056).

Testuinguru horretan, boterea gizaki batek edo giza talde batek bere borondatea eta nahia besteei ezartzeko duen gaitasun modura ulertu beharko litzateke. Menpekotasuna eta obediencia gizartearen, horrenbestez, boterearen erabileraren ondorioak izan ohi dira. Botereak, jakina, sorburu desberdinak izaten ditu, fisikoak,

materialak eta sinbolikoak, besteak beste. Botere fisikoa, hitzak adierazten duen bezala, indar hertsatzailean oinarritzen da. Oro har, zigor fisikoaren erabileran edo mehatxuan dauka bere funtsa. Botere materialak, berriz, baliabide ekonomikoen kontrola —ekoizpena, metaketa, banaketa etab.— hartzen du abiapuntutzat. Botere sinbolikoa edo arauemailea, azkenik, sozialki baliotsuak eta urriak diren sarien banaketa-ahalmenean finkatzen da. Horiek horrela, boterearen erabilerak aipaturiko osagaien konbinazioaren forma hartzen du gizartearen barnean, eta esparru politikoan botere-adierazpen guztiak biltzen dira.

Boterearen ikuspegiak abantaila nabarmenak dauzka politikaren azterketan. Egiazki, analisi-esparruaren hedadura zabalagoa izatean, beste modu batera baztertuta geratuko liratekeen era askotako harremanak, jokamoldeak eta erakundeak azter daitezke politikaren markoan. Horren adibiderik argiena estaturik gabeko gizartearen botere-egiturak dira; baina ez horiek soilik. Ikuspegi mugatuan, zokoratu egin beharko genituzke, adibidez, familia-guneetan burututako sozializazio politikoko prozesuak, gizartean egiten diren eta esanahi politikoa daukaten egintza kolektiboak, ekimen neokorporatibistek erdiesten dituzten erabaki politikoak edo komunikazio mediatikoaren garrantzi politikoa. Ordea, prozesu horiek guztiak daude harreman estuan gizarteko botere-auziekin. Politikaren ikuspegi murriztuari dagokionez, gune horietatik guztietatik at geratzen da politikotasuna; ondorioz, harreman politikoak —botere-harremanak— ulertzeko egokiak diren gizarte-interesguneak alde batera uzten dira. Aldiz, estatuari eta gobernuari zuzenean loturik ez dauden gizarte-bizitzaren garrantzi politiko potentziala azpimarratzean, bigarren ikuspegiak aberastu egiten du analisia bete-betean.

1.4.1. Aztergaiaren gunea: boterearen azterketa

Honaino iritsita, lan honetan abiapuntutzat hartuko den ikusmoldea zehaztea dagokigu orain. Gure ustez, politika kontzeptuak adierazten du boterearen erabilerara gizarte-egoeretan. Hori dela eta, politikaren azterketak botereari lotutako arazo guztiak hartu behar ditu beretzat, hala testuinguru sozialetan botereaz egiten diren erabilerak edo gertatzen diren botere-banaketak, nola gizarte-taldeetan burutzen diren boterearen legitimazioak eta deslegitimazioak, eta baita boterearen inguruan sortzen diren definizio-lehiak eta borrokak ere. Ez dago arrazoi analitikorik azterketa hau gobernu- edo estatu-erakundeetara mugatzeko.

Horrenbestez, bat gatz Dowse eta Hugheseekin, politika erakunde- eta antolaketa-multzoen arabera definitzeko bidea baztertzen dutenean (Dowse eta Hughes, 1986). Politika ezin da antolaketa-molde jakin batekin identifikatu, alegia, estatuarekin, nahiz eta estatuaren azterketa ere aintzat hartu behar den. Aitzitik, botereari loturik dauden egintzak antolaketa-testuinguru desberdinetan burutzen dira. Testuinguru horiek sozialak dira betiere. Halatan, politikotasunaren eta sozialtasunaren arteko harremanak azaldu beharko ditugu, erakunde politikoak gizarte-egituran txertatuz eta harreman politikoak —boterearekin lotura daukatenak— gizarte-harremanen bilbean kokatuz.

Abiapuntutzat hartzen badugu boterearen erabilera-moldeen azterketa gizarte egitura eta esparruetan, orduan ikuspegi horrek analisi-eremu zabal baten mugak zedarritzen ditu. Bertan, kontuan hartu behar dira ez soilik soziologiaren eta politika-zientziaren ekarpenak, ezpada beste diziplina batzuenak ere. Izan ere, beste inon baino nabarmenago agertzen da politikaren analisisian gaur egungo gizarte-zientzietan hain ohikoa den diziplinarteko lanaren premia (Morán eta Benedicto, 1995). Muga akademikoak mantentzea baino garrantzitsuagoa da, gure ustez, anbigutasunak gorabehera, ikuspegi zabal batek ematen dituen aukerei muzin ez egitea.

1.4.2. Eraldaketa historikoen eragina politikaren aztergaietan

Politikaren azterketan gaur egun nagusi diren joerek ideia horri eusten diotelakoan gaude. Gizarte industrialen bilakaerak eta horiek bizi izan dituzten eraldaketek itzelezko eragina sortu dute gizartearen eta politikaren arteko uztardura ulertzeko moduetan. Ildo horretan, politikaren azterketa akademikoa funtsatzen zuten oinarriko postulatuak astindu dituzte azken hamarraldietako gertakari historikoen.

Lehendabizi, egungo joerek atzera bota dituzte paradigma teorikoen monopolio-asmoak fenomeno soziopolitikoaren analisisian. Are gehiago, esparru publikoari itsatsirik egon den politikaren kontzeptua, oraintsu arte nagusi izan dena, murriztailetzat jotzen da dagoeneko. Ondorioz, ikerketa tradizionalen oinarrian zeuden ohiko dikotomia batzuen birdefinizioari ekin zaio analisi politikoetan, horrela sozietate/politikotasuna eta publikotasuna/pribatutasuna birdefinituz, zeren horien arteko mugarriak ez baitira zurrunik eta egonkorak, aldakorak baizik. Oraintsu arte eredu modura hartzen ziren azterketa tradizionalei buruzko adostasunik eza nabarmendu da, bestalde. Ohiko ikusmoldeek sortutako deskontentua lehenetsunaren eta interesguneen aldaketan islatu da, batik bat esparru politikoaren esparru sozialarekin, esparru ekonomikoarekin eta esparru kulturalarekin harremanetan jartzeko premian. Halatan, analisi historikoa ezinbestean agertzen da aldaketa politikoak ulertzeko unean, gizarte-mugimendu berrien egintza kolektiboa gero eta lotuago dago errealitate kulturalarekin eta botere politikoaren bilakaera nekez ulertu ahal da aldaketa ekonomikoaren berririk izan gabe. Gaur egungo gizarte konplexuetan gizarte-atal autonomoak badaude ere, horietako bakoitzean burutzen den aldaketak halabeharrez eragiten ditu ondorioak beste esparruetan. Horrenbestez, politikaren mugak aldatu egin dira poliki-poliki: gai berriak eta praktika politiko berriak sortzean, haiei egokituriko analisi-marko eta metodologia berriak ere erne dira jakintzaren arloan.

Era askotakoak dira azken hogeitun urteotan fenomeno soziopolitikoaren ulerkuntzari eragin dioten aldaketa esanguratsuak. Lehenengo multzo batean, azkenaldi honetan gizarte garatuen baitan sortutako prozesuak hartu behar dira kontuan (Benedicto eta Morán, 1995). Zalantzarik gabe, sistema politiko demokratikoak garapen ekonomiko kapitalistarekin eta, azken batean, gizarte-ongizatearekin

edukitako loturaren desagertzea izan da horietako bat. Haustura hori garrantzitsua da aintzat hartzen bada ongizate-sistemaren utopiak gidatu zuela Europaren berberaizakuntza politikoa Bigarren Mundu Gerratearen ostean. Krisi horren karietara, bi gogoetagine zabaldu dira fenomeno politikoen azterketan. Alde batetik, Ongizateko Estatuaren ereduaren porrotean jartzen da arreta; porrotaren arrazoiengatik inguruko eztabaidan Ongizateko Estatuaren eraispena eta haren egituraketa berria aldarrikatzen dutenen arteko lehia adierazten da, hain zuzen ere. Bestalde, desberdintasun ekonomiko eta sozialek sistema politikoetan sorrarazten dituzten ondorioen ebaluazioan oinarritzen da bigarren azterketa-lerro bat; bazterketa soziopolitikoaren molde berriak ikuskatzen dira horren barruan, menperatze ekonomikoan oinarritutako marjinazioarekin batera, desjabetze kulturalen eta sinbolikoan eraturako beste batzuk plazaratzen baitira indarrez.

Gogoeta-gai berriok, jakina, gizarte industrial garatueta sistema politikoen mugak eta zokoraketak definitzeko interesa pizten dute. Halatan, arrazoibide horien arabera, toki berezia hartzen du parte-hartze politikorako molde berrien sorrerak —egintza kolektiboko eredu berriak, besteak beste— sistema politikoen itxikeriaren ondorioz. Egintza kolektiboaren fenomeno berriak ohiko esparru politikotik at burutzen dira. Beraz, gizarte zibilaren esparruak eskuratzen du berebiziko protagonismo politikoa. Orobat, sistema politikoen mugak aztertzen dituen ikerketa-ildo berberak ematen die bidea gaur egungo sistema politikoen egonkortasunean eragiten duten legitimazio-arazoengatik azterketei ere.

Baina, zalantzarik gabe, gaitortzen jotzen ziren zenbait arazo politikoren berpizkundeak eragin du astindurik handiena azterketa politikoan. Hartara, ahalegin berriak egin dira azkenaldian estaturik gabeko nazionalismoen inguruko analisisian eta, ildo berean, nazio-estatu^{*} garapen historikoaren interpretazioan ere. Halaber, argi ikusi da nortasun kolektiboaren eta haien politizazio-prozesuen eraikuntzaren inguruan lan egin beharra, politikaren eta kulturaren arteko zubiak eratuz.

Berlingo harresiaren eraispenak eta Europako ekialdeko erregimen komunisten desagertzea, nola ez, beste norabide-aldaketa bat sorrarazi dute politikaren azterketa-esparruan. Izan ere, amaiera eman zaio egun batetik bestera munduaren bi muturreko ikusmoldeari. Bada, kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko oposizioa ez da soilik bi produkzio-ereduren arteko alderaketa hutsa izan, bizitza politikoa eratzeko bi formularen aurkaritza baztertzailerik baizik. Oposizio horren itzalak ia mende batean egindako azterketa politikoak zeharkatu ditu. Hori dela eta, sozialismo “errealaren” deuseztapenak ez ditu eragin makalak izan analisi soziopolitikoetan. Batetik, jakina, eztabaida zabaldu du orientazio marxista daukan teoria

* Zalantza izan dugu “*estado-nación* (g) / *état-nation* (f) / *nation-state* (i)” hitzaren euskarazko ordaina aukeratzeko orduan. Izan ere, bi eratan erabili eta proposatu da, hots: “*estatu-nazioa*” (besteren artean Euskalterm-en horrela dator) eta “*nazio-estatu*” (Elhuyar hiztegian horrelaxe proposatzen da). Guk, hainbat kontsulta egin ondoren, *nazio-estatu* aukeratu dugu, eta horrelaxe erabili dugu testu osoan zehar.

politikoaren barnean, zeren marxismoaren estatutu teorikoa jarri baita zalantzan ikusmolde teoriko gisa eta gizarte-errealitatearen azterketarako tresna modura. Bestetik, aldaketa politikoaren nolakotasuna bihurtu da azterketa askoren arretagune.

Azkenik, globalizazio ekonomikoaren bultzada ere ez da oharkabean geratu botere-harremani dagokienez. Merkatu-politikek estatuen mugarririk gaitu dituzte eta, era berean, estatuek beren eskumenetako batzuk galdu dituzte zenbait estatugaineko instantziaren mesedetan. Estatu hegemoniko baten inperialismo- eta militarismo-molde berrien eragina ere nabarmen azaleratzen da nazioarteko agertoki politikoan. Tartean, globalizazio-prozesuak munduko gizarte zibil globalaren eraketan ere badu adierazpen berri bat, haren bilakaera zein izango den oraindino oso argi ez badago, ere.

Bestalde, ohiko azterketa politikoetan saihestu egin da, behin baino gehiagotan, dependentzia ekonomikoak sortutako arazoak herrialde ez garatuen bilakaera politikoan izan duen eragina. Haatik, XX. mendean egindako aurreikuspen guztien aurrean, argi ikusi da ezen gaur egun azpigarapena auzi endemiko bilakatu dela munduaren zati handi batean. Eta azpigarapen ekonomikoarekin batera eredu politiko demokratikoen porrota ere errealitate gordina dugu munduaren alde horretan. Horiek horrela, garapen politikoaren eta modernizazio politikoaren gaiak ikuspegi desberdinetik ikertzen dira gaur egun. Besteak beste, politikaren oinarri ekonomikoak eta kulturalak aintzat hartzeko premia azpimarratzen da, Mendebaldeko eredu soziopolitikoaren esportazioak oso ondorio kaltegarriak izan dituelako. Bestalde, eredu kultural arrotzen ezarpenak zenbaitetan bizitza politikoan mestizajea sortu badu ere, beste hainbatetan erantzun bortzitzak eragin ditu mundu ez-garatuan. Hartara, ezinbestekoa da esanahi politikoak daukaten erantzun horien osagai kulturalak, erlijiosoak, ekonomikoak eta politikoak aintzat hartzea. Ideia horri jarraiki, gero eta gehiago dira politikaren azterketan kulturaren eta erlijioaren dimentsioak abiaburutzat hartzen dituzten ikuspegiak, zeren ezaugarri horiek nortasun kolektiboaren eraketa-prozesuak ulertzen laguntzen baitute.

1.5. LIBURUAREN ESKEMA

Politikaren eremuaren zabalkuntzak, lehenago aipatu den moduan, gizartearen eta politikaren arteko harremanak ikuspegi dimentsioanitz eta diziplinartekoa abiaburu hartuz aztertzea ekarri du berarekin. Zer esangura dauka, hartara, gizartearen eta politikaren arteko harremanek dimentsio anitzeko izaera daukatela baiezteak? Labor adierazita, faktore bakar batek —dela ekonomikoa, soziala, politikoa, ideologikoa edo kulturala— fenomeno politikoaren azalpenean ustez izan dezakeen eragin nagusitasuna baztertu egiten dela esan nahi du. Izan ere, interpretazio-aldagai soila zeukaten azterketa-ereduak saihestu egin dira arian-arian politikaren analisitik, zeren errealitate soziopolitikoaren konplexutasunaren egiaztapenak gezurtatu egin baitu holako ikusmoldeen azalpen-ahalmena.

Dimentsio anitzeko ikusmoldeak, bestalde, gogoetaginean jartzen du dimentsio politikoa, aldi berean politikotasunaren autonomiaren inguruko behinolako eztabaida alde batera utziz. Bada, ikusmolde horretan, politika faktore bat gehiago da izan, aintzat hartutako abiapuntuaren arabera autonomia-, eragin- zein dependentzia-harremanak izango dituen gizarte-bizitzako beste faktoreekin.

Hain zuzen ere, era horretako ikusmoldea, zabala eta integratzailea, politikotasuna gizarte-testuinguruaren barnean ulertzen duena eta diziplinarteko ekarpenak kontuan hartzen dituen hezurramitu gura dugu jarraian azaltzen diren gaietan. Halatan, bigarren atalean botere politikoaren egituren azterketari ekingo diogu, betiere testuinguru soziala gogoan izanik. Hartara, gizarte aurremodernotan garatzen diren botere-egiturak eta gizarte industrialetan sortzen den eraketa politiko nagusia —nazio-estatu— bereiziko ditugu lehendabizi. Estatu-egituren eraketa historikoa aztertzean, estatu modernoaren espezifikotasuna nabarmenduko dugu, poliki-poliki eskuratzen eta metatzen dituen baliabide desberdinak arakaturik.

Ondoren, hirugarren atalean, sistema politiko modernoaren eta kapitalismo industrialaren arteko harremanen berrikusketa ardatz hartuta, egitura politiko eta ekonomikoen egokitzapenaren eta birdefinizioaren berri emango da; bi egiturek bat egin dute XX. mendeko Ongizateko Estatuaren eremuan. Beranduko modernitatean, ordea, estatu-eredu hori krisiak jota agertzen da. Merkatu ekonomikoak globalizatu egin dira eta estatuak beren eduki soziala galdu dute neurri handi batean. Estatuaren eta merkatuaren aurrean gizarte zibilari lehentasun politikoa eman nahi dioten proposamenak agertzen dira abadagune horretan. Politika sozialen porrotak, halaber, herritartasunari buruzko eztabaida berriak zabaltzen ditu.

Laugarren eta bostgarren ataletan lantzen den ikuspegian, politikagintza gizarte-esparruan txertatuta agertzen da bete-betean. Halatan, gizartekideek egintza politikoak garatzeko dauzkaten aukeren analisiari heltzen zaio. Alde batetik, parte-hartze politikoaren inguruko gogoeta egiten da, eta hauteskunde-portaeran eragiten duten gizarte-faktoreak ikuskatzen dira. Bestetik, gizarteak politikoki antolatzeko eta sistema politikoan eragiteko baliatzen dituen antolaketa-tresnak aztertzen dira; horietako batzuk sistema politikoan erakundetuta eta integratuta daude, alderdi politikoak kasu. Beste batzuk, aldiz, eraketa eta egintzabide informalagoak agertzen dituzte, gizarte-mugimendu eta presio-taldeekin gertatzen den bezala.

Gizarte-ordenaren eta ordena politikoaren integrazioa eta legitimazioa ezin dira ulertu kulturaren gizarte-atala bazterturik utzita. Hartara, seigarren atalean bizitza politikoaren kultura-alderdiak aztertzen dira. Besteak beste, kultura politikoaren kontzeptua lantzen da eta, bereziki, kultura horren transmisio-prozesuetan jartzen da arreta, alegia, gizarteratze politikoaren prozesuetan. Horrekin batera, komunikazio politikoak masa-hedabideen garaian eskuratu duen garrantzia ere hartzen da gogoan. Hori dela eta, iritzi publikoaren mekanismoak aztertzen dira, baita portaera politikoan duten eragina ere.

Politikaren esparrua integrazio-esparrua ez ezik gatazka-gune pribilegiatua ere bada, bertan adierazten baitira botere-asimetriarik bortitzenak eta interes-borrokari-kerik agerikoenak. Hala ere, gatazka politikoak iturri eta adierazpen zeharo desberdinak izan ohi ditu. Hain zuzen ere, zazpigarren atalean esanahi politikoa duten gatazka-mota garrantzitsuenak aipatzen dira, besteak beste, oinarri materiala daukaten klase-gatazkak eta nortasun-auziak tarteko dituzten nazio-gatazkak. Azkenik, indarkeria politikoaren gaia aztertzen da. Izan ere, bortxa egintza politikorako tresna gisa erabiltzen da behin baino gehiagotan, batetik, Estatuaren jardueraren ohiko baliabidea delako eta, bestetik, gizarte-talde batzuek ere bitarteko politikotzat jotzen dutelako.

Zortzigarren atalean, beranduko modernitateko gizarteetan politikagintzak jaso izan dituen eraldaketak planteatzen dira. Hain justu, XX. mendearen amaieran merkatu kapitalistek behinolako lurralde-mugarriak gainditu dituzte, globalizazio-aroari hasiera emanez. Globalizazioa prozesu ekonomikoa izan da batik bat; dena den, ondorio politiko garrantzitsuak izan ditu. Globalizazio-prozesuarekin batera estatuen eskumenak eta ohiko funtzioak aldatu egin dira apurka-apurka. Egintza politikoa dagoeneko ez da Estatuaren markoan soilik garatzen, ezpada beste esparru batzuetan, Estatua baino esparru zabalagoetan zenbaitetan eta, aldi berean, Estatua baino eremu murrizagoetan beste zenbaitetan. Politikotasunaren mugak, bada, birdefinitu egin dira. Hartara, lehenago ez-politikotzat hartzen ziren gaiak eta bizitza-atalak —hala nola gorputza, sexualitatea, nortasun indibiduala eta gizarte-bizitzako esparru pribatua— eragin politikoen menpe geratu dira. Gauza bera gertatu da beste gizarte-eremu batzuekin ere, batik bat gizarte-garapenaren baliabide funtsezkotzat jotzen diren informazioarekin, ezagutza zientifikoarekin eta, oro har, ekoizpen sinbolikoarekin. Horiek denak hartu ditu bere barnean politikak gaur egungo gizarteetan. Hortaz, egintza politikoaren ereduak aldatu egin dira, baita gatazka politikoak sorrarazten dituzten auziak ere. Politikagintza-molde zaharrak eta berriak aurrez aurre dihardute gaur egungo esparru politikoa behin eta berriro definitzen.